

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

23/2019 Foru Agindua, urriaren 9koa. Aldatzea apirilaren 27ko 20/2006 Foru Agindua, zeinak arautzen baitu produktibitate osagarria Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren eremuan

Apirilaren 27ko 20/2006 Foru Aginduak produktibitate osagarria ezarri zuen Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren eremuan. Harrezkero, hainbat aldiz aldatu da, hain zuzen ere, otsailaren 14ko 14/2007 Foru Aginduaren bidez, urtarrilaren 22ko 3/2009 Foru Aginduaren bidez, maiatzaren 29ko 82/2013 Foru Aginduaren bidez, irailaren 20ko 103/2016 Foru Aginduaren bidez, abuztuaren 3ko 185/2017 Foru Aginduaren bidez eta martxoaren 2ko 51/2018 Foru Aginduaren bidez eta abenduaren 4ko 154/2018 Foru Aginduaren bidez.

Une honetan beharrezkoa da beste aldaketa bat egitea hainbat alderdi direla eta. Batetik, beharrezkoa da apirilaren 27ko 20/2006ko Foru Aginduaren C) apartatua aldatzea, irailaren 20ko 103/2016 Foru Aginduak emandako idazkeran. Bestetik, mantentze zaintzak arautu behar dira, geroago zehaztuko den moduan.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendua onesten dituen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak –lotuta dago Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluekin– esleitutako eskumenez baliatuta, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eremuan produktibitate osagarria arautzen duen apirilaren 27ko 20/2006 Foru Aginduaren 2. C) puntua. Haren testua honek ordeztauko du:

C) Zaintza medikoak: produktibitate osagarriaren bidez haborokina ordainduko da GOFeren eremuan egindako zaintza mediko bakoitzagatik, eskala honen arabera:

- Lanegunean egindako zaintza (7 ordu): 36,76 euro/zaintza.
- Larunbatean egindako zaintza (14 ordu): 73,56 euro/zaintza.
- Igandean edo jaiegunean egindako zaintza (14 ordu): 91,78 euro/zaintza.
- Lanegunean egindako zaintza (17 ordu): 89,27 euro/zaintza.
- Larunbatean egindako zaintza (24 ordu): 126,09 euro/zaintza.
- Igandean edo jaiegunean egindako zaintza (24 ordu): 157,35 euro/zaintza.

Bigarrena. Produktibitate osagarria Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eremuan arautzen duen 20/2006 Foru Aginduan K) atal hau txertatzea, zeinak definitzen baitu produktibitate osagarria osatzen duen beste kontzeptu bat:

K) GOFeren Mantentze Zerbitzuaren zaintza sistema: Produktibitate osagarriaren bitartez, haborokina ordainduko da, honako kontzeptu eta zenbatekoen arabera:

1. Zaintza sistemako profesionalak (mantentze lanen burua eta mantentze lanen erdi mailako teknikaria):

GOFeren eremuan egindako zaintza bakoitzagatik, honako eskala honen arabera:

- Lanegunean egindako zaintza: 58,28 euro.
- Larunbatean egindako zaintza: 83,85 euro.
- Igandean edo jaiegunean egindako zaintza: 107,36 euro.

2. "In situ" zerbitzuak ematen dituzten profesionalak (arduraduna eta lantokiei atxikitako mantentze ofizialak):

Zaintza egiten ari den pertsonak hala eskatuta, borondatez eta atxikita dauden lantokian lanorduetatik kanpo zerbitzuak ematen dituzten ordu bakoitzeko, honako eskala honen arabera:

- Lanegunean: 31,70 euro orduko.
- Igandean eta jaiegunean: 37,83 euro orduko.

Lanpostuaren eginkizunak betetzen ez diren egoeretan –esaterako, opor egunak, aldi baterako ezintasunak, lizentziak eta baimenak, asaskatze egunak edo lanpostutik kanpo ematen den denbora– lanerako prest ez dauden profesionalak ez dute ezarritako konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubiderik izango.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean eta lehenengo xedapenak ondorioak izango ditu 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organoaren aurrean. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena azaroaren 26ko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta.

Gasteiz, 2019ko urriaren 9a

Gizarte Politiken Saileko diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA